



DANI BLANCO

Iñaki Odriozola

IRAKASLEA ♦

Okerbide Estatua

GOSALTZEN nengoela, harrিতuta utzi nau politikari famatu batek: “Kataluniako herritarrei, euren etorkizuna erabakitzeke, hitza ematea demokraziaren aurkako ekintza da, demokrazia dagoen legedia errespetatzea baita, eta legedia horrek ez die uzten katalanei hitza hartzen”. Ogi xigortua kafesnera erori zait, eta zipiritzina alkandora jantzi berria zikindu dit, bat-batean.

“Hemen zerbaitek ez du funtzionatzen”, pentsatu dut trapuarekin kafe orbana garbitzen saiatzen nintzen artean, “norbaitek oinarriak hankaz gora jarri dituelako”. Nola daiteke herritarrei hitza ematea antidemokratikoa izatea? Beste galdera bat izango litzateke, nola izan dezake horrek hain aurpegi gogorra? Baina tira.

Ilustrazioaren bultzatzaileek Zuzenbide Estatua ezarri zigutenean, legedia herritarren arteko oinarritzko akordio –hitzarmen soziala– bezala pentsatu zuten. Beraz, gizabanakoak dira oinarritzkoak, eta hauek elkarbizitzarako antolatzen dira, adostasun batzuetara helduz. Adostasun horiek lege bihurtzen dira, eta ondoren, forma juridikoa hartu dutenean, bete egin behar dira.

Logikarik baldin bada, denboraren poderioz, gizarteko akordioak, jendartea aldatzen doan neurri berean, aldatzen joan behar dira, garai berriei egokitzuz, hitzarmen soziala eguneratuz, estatua eta gizabanakoaren arteko hitzarmenak oreka mantendu dezan.

Demagun hori horrela dela (eztabaidagarria izan arren, Marx gogoan). Horren arabera, herritarrei hitza ematea da demokraziaren oinarria, eta legea horretara egokitu beharko litzateke, herritarren nahia gauzatzeko bidea babesteko. Eta aldatzekotan, legea egokitu beharko litzateke, katalanek euren etorkizuna erabaki dezaten.

Baina, gaur egun euren burua ilustratutzat daukaten liberalek eta sozialdemokratek, ordea, beti gizabanakoaren aldarria egiten ari diren arren, gero, legea, honen gaineko bezala hartzen dute. Legeak gorpuztutako izaera aldaezin eta betierekoa bailuen.

Legeak, Zuzenbide Estatuak, Jainko itxura hartu du, eta gizakion arteko akordioek gain ezartzen den zementuzko kubo astun bihurtu zaigu, demokrazia beraren zentzua ere irentsi eta aldatu duena. Legea erlijio bihurtu dute, eta gizabanakoei beteazten digute, berezko edo naturala

bailtzen, gure arteko akordioa dela ezkutatzuz. Legearen inperioa, inperialismo bihurtu zaigu, eliteek, egoera hankaz gora jarritz, okerbideetik eroan diguten Estatuan.

Baina hori onartezina da, kotxerik ez datorrenean semaforo gorria dagoelako geldirik egotea bezalaxe. Ez zaizue iruditzen? ■



Legearen inperioa, inperialismo bihurtu zaigu, eliteek, egoera hankaz gora jarritz, okerbideetik eroan diguten Estatuan

DANI BLANCO



Amets Arzallus



BERTSOLARIA

Zaborra

NORK esango zuen zaborra hain modan jarriko zenik, orain balkoiek ere luzitzen dute, batzuetan gauza ederra da mugaz honantzko aldean bizitzea. Jendea bere alderdiarekin hain maila absurduraino lerrotatzen ez den lekuan. Hendaian zaborra beste gisa batera biltzen da; badira kontenedore klasikoak, jendeak zernahi botatzen du hara, baina bada atez ateko sistema bat ere, aspaldian martxan jarri zena. Herriko Etxeak etxe bakoitzari kutxa hori bat eta berde bat eman zizkion, horira botatzen ditugu papera eta ontziak, eta berdera beira, astean behin etxe aurrera ateratzen ditugu,

eta herriko langileek biltzen dituzte. Ez da derrigorrezkoa eta birziklatze kopuru aldetik ez da oso emankorra izango, ez dut beraz eredugarritzat jotzen. Baina argumentu bat desaktibatzeke balio du. Nik, Hendaian, ez dut inoren ahotik entzun kutxa horiek gure etxeetako intimitatea urratzen dutenik, eta urteak dira darabilzki-gula. Zer da intimitatea, erosketak denen bistan egin, eta gero zaborra konfesategian apaizari entregatzea? Nik Hendaian ezango nuke argumentu barregarri hori bota litekeela errefusara. ■

